BASQUETOUR

TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE TURISMO

ATZERRIKO BISITARIAK EUSKADIN – FRONTUR 2009

2011ko abendua



Herri-baltzua
Sociedad Pública del
EUSKO JAURLARITZA

Société Public du
Public corporation of
GOBIERNO VASCO

BASQUETOUR

TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE TURISMO

EZAUGARRIAK

Lanaren zuzendaria
César Legarra Rivero.
ARALDI SL enpresako proiektu-zuzendaria

Erredaktore-taldea
Kepa Salaberria Folgado.
Zientzia Politiketan eta Soziologian doktorea.
ARALDI SL enpresako analista

Sortze-data:
2011ko abendua

Bertsioa

Iruzkinak

Aurkezpena

Eusko Jaurlaritzak, BASQUETOUR Turismoaren Euskal Agentziaren bidez, Mugako Mugimendu Turistikoen (FRONTUR) eta Gastu Turistikoaren Inkestaren (EGATUR) etengabeko estatistikaren berariazko ustiapenak emandako emaitzak aurkeztu ditu beste urte batez. Datuak Euskal Autonomia Erkidegokoak dira, eta bi inkesta horiek, Turismo Azterketen Erakundeak (IET) egin ditu, Euskadin dagoen errealitate turistikoa hobeto ulertzeko.

Txosten honetan dagoen informazioa 2009. urtekoa da. Horrela, 1998. urtean, Euskadira etortzen diren atzerriko turisten eskaeraren portaera definitzen duten egiturazko ezaugarriei eta turisten joerei buruzko informazio zehatza izateko egin zuten lehen txostenari gehituko zaio.

Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Turismoaren Euskal Agentziak eskerrak eman nahi dizkio Turismo Azterketen Institutuari, turismoaren arloan, testuinguru estatistiko nazionalaren estatistikarik sendoenetako baten datuak eskuratzeko emandako laguntzarengatik.

FRONTUR inkestaren fitxa teknikoa:

> *FRONTUR erakundearen estatistika Espainiara, hilabetez hilabete, mugetatik heltzen diren turisten kopurua neurtzeko oinarrizko iturri ofiziala da.*
>
> *Argitalpen honetan agertzen diren taulak egiteko erabilitako informazioa, Euskadira aireportutik eta errepidez Espainiatik sartu ziren bidaiariei egindako inkestetatik bildu dugu.*

EGATUR inkestaren fitxa teknikoa:

> *Gastu Turistikoaren Inkesta (EGATUR), mugan, etengabe eta hilabetez hilabete, errepide, aireportu eta itsas portuetako muga-pasabideetan egindako lana da. Inkesta, egoiliarrak ez diren bisitariei Espainiatik irtetean egindako elkarrizketa pertsonalaren bidez egiten da.*
>
> *Argitalpen honetan agertzen diren taulak egiteko erabilitako informazioa, Euskadira aireportutik eta errepidez Espainiatik sartu ziren bidaiariei egindako inkestetatik bildu dugu.*

Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.

1. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO BISITARIEN TIPOLOGIA

1.1.- Euskadira etortzen diren bisitari motak. Urteko bilakaera (2006 – 2009)

Euskadira 8.825.115 atzerriko bisitari etorri ziren 2009. urtean. Gutxi gorabehera, aurreko urtean baino 166.000 bisitari gehiago dira. Beraz, aurreko urteetako joera aldatu egin da, bisitari kopuruak behera egin baitzuen.



Bisita gehienak txangoak egiteko izan dira, eta emandako gau kopurua aurreko urteetan lortutako maila maximoetatik urrundu da, egindako bisitetatik % 9tan bakarrik eman baitute gaua.

Txangozaleek eta turistek oso portaera bestelakoa izan zuten 2009. urtean. Txangozale kopuruak igoera arina izan zuen; % 2,5ekoa baino ez. Eta horregatik aldatu egin da, hain zuzen, aurreko urteetako beheranzko joera. Horren aldean, turistek atzerriko bisitarien eskaeraren jaitsieraren eragina izaten jarraitzen dute, azken urteetan bi taldeetan berdina izan bazen ere.

Urteko bilakaera desberdina izan zuten 2009. urtean, eta horrez gain, azken urteetan bien eskaerak behera egin du. Horren eraginez, desoreka nabaria dago Euskadira etortzen diren atzerriko turisten eta txangozaleen artean.

Gure turismo-eskaeraren ezaugarririk esanguratsuenetako bat, gure erkidegoan atzerriko turismoak duen pisu handia da, zalantzarik gabe. Funtsean, bi arrazoirengatik gertatzen da: batetik, Iparraldeko mugako bi aldeen artean dagoen elkarrekintza maila handiarengatik, lanen, merkataritzaren, negozioen, aisialdiaren edo senideen bidez, muga banaketaren kontzeptutik oso urrun dagoen lurralde-jarraitutasuna erakusten dutenak; bestetik, Estatuko beste leku batzuetan, eguzkia hartzeko eta hondartzara joateko opor-ereduak Euskadin duen eragin eskasaren isla da.

1.2.- Euskadira etortzen diren bisitari motak. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa (2006 – 2009)



Emandako gau kopuruari dagokionez, desberdintasun handia dago Euskadira eta Espainiara etorritako atzerriko bisitarien artean.

Euskadin gehienbat txangoak egiteko etortzen dira (bisiten % 91 baino gehiagotan); Estatuan, berriz, % 40 baino ez dira.

Hala ere, 2006. urtetik, txango kopurua handitu egin da bietan.

Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.

1.3.- Euskadira etortzen diren bisitari motak, garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2009)

Euskadira etorritako atzerriko bisitari gehienak errepidez etortzen dira: % 97 baino gehiago horrela etortzen dira.

Errepidearen eta aireportuaren erabileraren artean dagoen alde hori txangozaleengatik gertatzen da, hegazkina gutxitan erabiltzen dutelako.

Hala ere, gaua ematen dutenen kasuan, normalean hegazkinez etortzen dira. Turista gehienak errepidez etortzen dira; lau turistetatik ia hiru.

Urteetan zehar eutsi egin zaio errepidez eta hegazkinez etorritako turisten arteko desberdintasunari. Txangozaleen sarreretan gertatutako aldaketek asko baldintzatzen dute, turismoaren artean gertatzen diren aldaketa nabarmenak ezkutatzen dituztelako.



2. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TURISTAK

GARRAIO MODUA

Euskadira 780.000 turista etorri ziren 2009. urtean. Aurreko urtean baino 36.500 gutxiago dira. Baina esanguratsuena da 2006. urtetik (bisitari gehien izan zuen urteak, milioi bat baino gehiago etorri baitziren), eskaera etengabe jaisten ari dela. Horrela, aipatutako urtetik, atzerriko turismo-merkatua ia % 24 jaitsi egin da. Merkatuaren jaitsiera handi horren eraginez, eskaerak 2004. urtearen aurreko garapen-mailetara jaitsi egin zen.

Hala ere, azken urtean bidaiari kopuruak egin duen arren, hegazkinez egindako bisita kopuruarengatik gertatu da. Izan ere, % 18 jaitsi dira, baina errepidez egindakoak % 2 handitu egin dira. Horren ondorioz, hegazkinez etorritako bidaiari kopurua beheko mailan kokatu da berriz; 2002. urtean izandakoan hain zuzen. Orduan, XXI. mendearen hasieran airetiko merkatu orokorrean izandako jaitsierarengatik gertatu zen.

Hegazkina erabiltzen duten turista kopuruaren jaitsiera berezi horren eraginez, errepidea erabiltzen duten turista kopuruak gora egin du berriz ere zenbait urteren ondoren, 2004. urtetik aurrera hegazkinez etorritako bisitari kopurua gora egin zuelako. Egindako % 73 bisitetan errepidez etorri dira; 2002. urteaz geroztik kopururik handiena (airetiko garraioaren krisi orokorra gertatu zen orduan).

Errepidez etorritako turisten zifrak minimo historikoetan ere kokatu dira, aurreko urtean bezala.

Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.

2.1.- Euskadira etortzen diren turistak, garraio motaren arabera. Hileko bilakaera (2007 – 2009)

		Guztira / Total	Sarbidea / Vía de acceso	
			Errepidea / Carretera	Aireportua / Aeropuerto
2007	**Guztira / Total**	**950.688**	**663.317**	**287.371**
	Urt / Ene	53.030	36.303	16.727
	Ots / Feb	47.308	29.044	18.264
	Mar / Mar	59.786	35.076	24.710
	Apr / Abr	76.153	48.728	27.425
	Mai / May	79.818	51.638	28.180
	Eka / Jun	77.000	52.348	24.652
	Uzt / Jul	158.001	124.310	33.691
	Abu / Ago	159.317	127.983	31.334
	Ira / Sep	76.666	49.497	27.169
	Urr / Oct	76.988	49.594	27.394
	Aza / Nov	43.021	29.692	13.329
	Abe / Dic	43.601	29.105	14.496
2008	**Guztira / Total**	**817.271**	**560.517**	**256.754**
	Urt / Ene	36.754	24.081	12.673
	Ots / Feb	52.088	36.087	16.001
	Mar / Mar	60.253	35.468	24.785
	Apr / Abr	56.765	34.016	22.749
	Mai / May	76.809	47.187	29.622
	Eka / Jun	67.056	48.295	18.761
	Uzt / Jul	126.921	101.836	25.085
	Abu / Ago	135.939	107.657	28.282
	Ira / Sep	72.475	40.689	31.786
	Urr / Oct	58.076	37.035	21.041
	Aza / Nov	36.731	24.300	12.431
	Abe / Dic	37.404	23.866	13.538
2009	**Guztira / Total**	**780.758**	**569.551**	**211.207**
	Urt / Ene	32.459	21.396	11.063
	Ots / Feb	41.680	29.387	12.293
	Mar / Mar	50.531	36.304	14.227
	Apr / Abr	53.981	34.565	19.416
	Mai / May	54.290	37.254	17.036
	Eka / Jun	58.193	41.732	16.461
	Uzt / Jul	149.633	123.617	26.016
	Abu / Ago	124.427	101.727	22.700
	Ira / Sep	71.668	50.979	20.689
	Urr / Oct	57.743	42.294	15.449
	Aza / Nov	42.520	28.104	14.416
	Abe / Dic	43.633	22.192	21.441



Euskadiko atzerriko turistak gehienbat udako hilabeteetan etortzen dira, hots, uztail eta abuztuan, eta udaberriko eta udazkeneko turista kopurua negukoa baino askoz ere handiagoa da.

Izan ere, uztail eta abuztuan, dagoen turismo-eskaeraren herena biltzen da.

Aurreko urteen aldean, 2009. urteko berezitasun gisa, uztailean abuztuan baino turista gehiago egon zen, bai errepidez bai hegazkinez etorritakoen artean.

Udatik kanpo, Aste Santuan, turista gehiago ere etorri ziren. Hala ere, Gabonetan, igoera ez zen hain nabaria izan.

Aurreko urtearen aldean, lehen seihilekoan eta abuztuan gertatu zen nagusiki bidaiari kopuruaren jaitsiera. Abuztuan, hain zuzen, 2008an baino % 8,5 bisitari gutxiago egon zen, eta 2007an baino % 22 gutxiago. Bereziki adierazgarriak dira jaitsiera horiek. Hil horretatik aurrera nolabaiteko egonkortasuna gertatu zen, eta urteko azken bi hiletan igoera handia izan zen.

Errepidez nahiz hegazkinez etorritako bidaiarien portaera berdina da, abuztura arte bereziki. Hilabete horretan bakarrik gertatzen dira desberdintasunak errepidez nahiz hegazkinez etorritako bidaiarien artean. Horrela, irailean eta urrian, errepidez etorritako bisitari kopuruak gora egiten du; hegazkinez etorritakoak, berriz, behera. Hala ere, abenduan, bisitari asko etortzen dira hegazkinez, eta errepidez etorritakoen kopuruak behera egin du, zertxobait.

Azken ureetan, abuztuaz gain, turista kopuruak behera egiten du udaren hasierako eta amaierako hilabeteetan. Hala ere, joera orokor hori, errepidez joaten diren bidaiarien portaerarengatik da bereziki, hegazkinen joaten direnen portaerarengatik baino gehiago, jaitsiera hilabete guztietan zehar gertatzen delako, modu homogeneoago batean, azaroan izan ezik, eta abenduan bereziki, aurrekoetan baino portaera hobea baitute.

Horrez gain, abenduan, ia bidaiari kopuru bera etorri zen bai errepidez bai hegazkinez.

Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.



2.2.- Euskadira etortzen diren turistak, garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2009)

Aurreko urtearen aldean, 36.500 turista gutxiago etorri ziren 2009. urtean.

Nahiz eta jaitsiera hori 2006tik merkatuak zuen joeraren isla izan, urteko bilakaeran, bi ezaugarri garrantzitsu bereizi ziren:

Lehendabizi, jaitsiera (% 4,5) arindu egin da aurreko urteen aldean (% 7 eta % 14 hurrenez hurren).

Bigarrenez, jaitsiera hegazkinez etorritako bisitarien artean gertatu zen, errepidez etorritakoen artean igoera arina gertatu baitzen.

Komeni da gogoratzea errepidez etorritako bisitarien portaera positiboa izan zela urteko azken hiletan, igotzeko joera izan baitzuen.

Azken urteetan bai errepidez bai hegazkinez etorritako bidaiari kopuruaren jaitsiera etengabea izan da, eta hori dela eta, azken hamarkadaren maila minimoetan kokatu da.



Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.

BIZILEKUA

2.3.- Euskadira etortzen diren turistak, garraio motaren eta bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2009)



Atzerritarrak gehienbat errepidez etortzen dira, distantzia ertain eta luzeko turismoaren nolabaiteko mendetasuna duelako. Horrela, bisitarien % 52 Frantziatik etortzen da, 407.000 turista gutxi gorabehera, eta haietatik, ia % 70, errepidez etortzen da. Bestalde, hegazkinez, Euskaditik puntutik punturako aire-loturak dauden herrialdeetatik datoz bisitariak gehienbat, hala nola Erresuma Batutik eta Alemaniatik, eta, oro har, urtetik urtera, lotura hori ez dagoen herrialdeetatik etorritako bisitari kopurua handitzen ari da.

Euskal turismoaren industriak distantzia ertain eta laburreko frantziar turismoarekiko duen mendetasuna nabarmen handitu zen 2009an; hori izan zen, hain zuzen, ezaugarri nagusia. Eskaeraren jaitsiera ez zen bera izan merkatu guztietan; Frantziako merkatua, errepidez batez ere, dinamikoa izan zen, 30.000 turista inguru gehiago etorri baitziren. Gainerako merkatuetan orokorragoa izan zen jaitsiera.

Airetiko garraioan, jatorriaren aniztasuna handitu egin zen, baina, oro har, jaitsiera gertatu zen, merkatu nagusietatik bisitari kopuruak behera egin zuelako: Frantziatik, Italiatik, Portugaletik, eta, Alemaniatik bereziki. Erresuma Batuko merkatutik ere aurreko urtean baino bidaiari gutxiago etorri ziren; hala ere, 2009. urtean, pisu erlatiboari eutsi zion.

2.4.- Euskadira etortzen diren turistak, bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2009)



Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.

BIDAIAREN ARRAZOIA

2.5.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2007 – 2009)



Atzerritar gehienak, ia % 54, funtsean aisialdirako etorri ziren. Gainerakoak, negozioak egiteko, ikasteko eta arrazoi pertsonalengatik etorri ziren. Arrazoi nagusi horietatik kanpo, Euskadira joateko motibazioak eskasak dira.

Hala ere, atzerriko turismoaren eskaerak krisia izan zuen, funtsean, oporrengatik eta aisialdirako etortzen diren bisitarien kopurua behera egin zuelako. Horren ondorioz, negozioak egiteko arrazoien, ikasteko arrazoien, arrazoi pertsonalen edo bestelakoen pisu erlatiboa nabarmen handitu egin zen.

2.6.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren arabera. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa (2007 – 2009)

Euskadin nahiz Estatuan turismo-eskaerak antzeko ereduari jarraitzen dio, izan ere, bisitak, gehienbat, aisialdirako egiten baitira. Haien atzetik, urrutira, negozioak egiteko arrazoiak daude, eta hirugarren lekuan, familia-arrazoiak eta arrazoi pertsonalak daude. Oso arrazoi gutxik bestelako motibazioa.

Hala ere, antzekotasuna ez da osoa, eskaera horren funtsezko alderdietan bakarrik delako. Izan ere, Estatuan, aisialdirako turismorako joera handia dago, normalean eguzkia hartzeko eta hondartzara joateko erabiltzen baitute, baina Euskadiren kasuan eskaera hori eskasa da, turismo-azpiegitura horiek ez dituelako eta, agian, klimaren ereduarekin lotutako zenbait ezaugarri ere ez dituelako.

Tradizioz, negozioek pisu handia izan dute Euskadira etortzen diren turisten artean. Horrela, turismo-eskaintza gehiena bide horri jarraitu dio. Gaur egun, aisialdirako eskaerak nabarmen egin du behera nazioarteko krisi ekonomikoarengatik, eta turisten % 20 arrazoi horregatik etortzen dira, Estatuaren bikoitza. Alde handi horren arrazoiak bi dira nagusiki: batetik, euskal industria-egituraren bizitasuna; bestetik, aisialdiko eskaera-eredu masiborik ez dagoelako, eguzkia eta hondartza nagusiki.

Antzekoa gertatzen da bisita pertsonaleko ereduekin. Euskadik osasun-aisialdiko eskaintza du, eta bezero tradizionalak finkatzen dituen heinean gora egiten du. Halaber, mugan egoteak eta mugimenduen izaera ireki eta ia eskualdekoak arrazoi pertsonalengatiko turista-fluxua egotea ekartzen du. Horregatik bikoizten da, hain zuzen, Euskadin, Espainiaren aldean, arrazoi horregatik etortzen diren bisitarien kopurua. Hala ere, negozio arrazoiekin gertatzen den moduan, pisu erlatibo handi horrek, aisialdi-eredu masiborik ez egotearekin du zerikusia.

Euskal Autonomia Erkidegoaren turismo-eskaeraren aldean, Estatukoak egonkor eutsi dio eskaeraren motibazio-egiturari azken urteetan.

Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.



2.7.- Euskadira etortzen diren turistak, bidaiaren arrazoiaren eta garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2009)



Oinarrizko alderdietan dauden antzekotasunez gain, hala nola motibazio guztien artean aisialdi nagusitzearena, errepidez eta hegazkinez etortzen diren bisitarien motibazioen artean alde nabarmenak daude.

Lehendabizi, errepidez etortzen diren turista gehienak aisialdirako etortzen dira, hegazkinez etortzen direnen aldean. Bigarrenez, hegazkinez etortzen diren turisten artean arrazoi pertsonal gutxi daude Euskadira etortzeko. Gehienbat, aisialdirako (% 47) eta negozioak egiteko (% 39) etortzen dira.

Nabarmendu behar da azken urteetan aisialdirako eta oporretarako bisitek izandako bilakaera. Nabarmen murriztu egin dira, bai hegazkinez bai errepidez etortzen diren bisitarien artean, eta hegazkinez etorritakoen artean bereziki pisu erlatiboak jaitsiera handia izan du. Aisialdirako errepidez etortzen diren turisten eskaeraren jaitsiera arindu egin zen 2009an; hegazkinez etortzen direnen artean, berriz, handitu.

Horrez gain, arrazoi pertsonalengatik errepidez etortzen diren turistak izan ezik, ez da egon bestelako motibazio dinamikorik aisialdiaren arrazoia ordezkatzeko.

Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.

EGONALDIAREN IRAUPENA

2.8.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2009)



Atzerriko turismo eskaeran egonaldi oso laburrak nagusi izan ziren 2009an. Horrela, % 62k inguruk 3 gau ematen dituzte, eta ez da % 14ra heltzen astebete baino gehiagoko bisitak egiten dituzten bisitarien taldea.

Bi eta hiru gaueko egonaldiak maiz egiten dira; normalean, asteburuetan edo zubietan. Gainera, pisu erlatiboan (ehuneko zortzi puntu inguru) nahiz bisiten bolumenean (% 21) 2009an handitu diren bakarrak dira, gainerakoen aldean.

Muturreko egonaldietan, hots, gau batekoetan edo bi aste baino gehiagokoetan, 2009an behera egin zuten, urtetik urtera hedatzen ari zirela zirudien arren. Astebete baino gehiago egonaldiek nabarmen egin zuten behera, % 25 baino gehiago.

Atzerriko turismoaren portaera Espainian oso bestelakoa da, izan ere, gehienbat, 4 eta 7 gau artean ematen dituzte, eta hiru egun baino gehiagoko egonaldiak nagusi dira (ia % 80); Euskadin berriz, % 40ra ere ez dira heltzen.

Bi aste baino gehiagoko bisiten ehunekoa bakarrik da antzekoa. Antzekotasun horrek ez du ezkutatzen turismo-ereduen desberdintasun handia. Euskadik hurbileko inguruaren mendetasun handia du, sarbide azkarra duelako, errepidez nagusiki, eta motibazio nagusiak aisialdia, kultura eta pertsonalak dira. Oso turista gutxi etortzen da eguzkia hartu eta hondartzara joateko, eta, horrek, Espainiatik etorritako turista kopurua mugatu egiten du.

Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.

2.9.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren arabera. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa (2006 – 2009)



2.10.- Euskadira etortzen diren turistak, egonaldiaren iraupenaren eta garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2009)



Turista zein garraio motaren bidez etortzen den, gau kopurua ere aldatu egiten da.

Hegazkinez etortzen direnek gau gehiago ematen dituzte, errepidez etortzen direnen aldean. Horrez gain, gau bateko egonaldiak ekartzen ditu, eta gehienak 2 eta 15 gauetakoak dira. Bisitak, normalean, 4 eta 7 gau artekoak dira, eta astebeteko edo bi asteko egonaldi kopurua 2 eta 3 gauetako egonaldi kopurua bezain handia da.

Horren aldean, errepidez etortzen direnek, gehienbat, hiru gau ematen dituzte gehienez, eta oso gutxi dira astebete baino gehiago ematen dutenak.

Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.

Bi kasuetan, eskaeraz gain, batez besteko iraupenak ere behera egin du. Beherapen hori handiagoa da hegazkinez etortzen direnen artean, eta bereziki 4 eta 7 gau artean ematen dituzten bisitarien kasuan; orokorra da 4 gau baino gehiago ematen dituztenengan.

Errepidez etortzen direnen artean, gehienek bi egun eman zituzten 2009an, 2 eta 3 gau eta astebete artean bereziki.

Hegazkinez etortzen den bisitariek ematen duten gau kopurua, atzerritarrek Espainian ematen dutenaren antzekoa da. Horrela, gehienbat, 4 eta 7 gau artean ematen dituzte, baina egonaldi laburragoak egiteko joera nabarmentzen ari da, eta horien aldean, asteburuetan eta antzekoetan ematen dituzte orain.

BATEZ BESTEKO EGONALDIA

2.11.- Euskadira etortzen diren turistak, batez besteko egonaldi kopuruaren eta bizilekuaren arabera (2009)

Batez beste 6,1 gau ematen dituzte atzerritarrek, eta haien jatorria zein den gau kopurua aldatu egiten da.

Nabarmentzen dira Europatik ez datozenak. Batez beste ia 15 gau ematen dituzte; beraz, alemanen, britainiarren, italiarren eta horietatik kanpoko Europako herrialdeko bisitarien bikoitza. Horiek guztiek batez beste ia 8 gau ematen dituzte.

Kontrako muturrean, frantziarrek 4 gau ematen dituzte, eta portugaldarrek bisita laburragoak egiten dituzte.



Nabarmendu behar da alemanen eta italiarren gau kopurua murriztu dela 2008. urtearen aldean, eta bereziki portugaldarrenak, bost gutxiago ematen baitituzte. Kontrako muturrean, nabarmendu behar da Europakoak ez diren herrialdeetatik etorritako bisitariek emandako gau kopurua handitu egin zela.

2.12.- Euskadira etortzen diren turistak, batez besteko egonaldi kopuruaren eta bizilekuaren arabera. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa (2009)



Batez besteko egonaldi kopurua antzekoa da Estatuan nahiz Euskadin.

Oro har, eta Europakoak ez diren herrialdeetatik etorritakoak alde batera utzita, Estatuan luzeagoak izan ohi dira. Hori, alemanen, portugaldarren eta frantziarren artean gertatzen da bereziki. Frantziarrek Estatuan Euskadin baino gau gehiago ematen dituzte, halako bi, hain zuzen.

Frantziako turisten egonaldi kopurua atzerritarrek Euskadin eta Estatuan egindako turismoaren erakusgarria da, errepidez etortzen den distantzia ertain eta laburreko turismo baten oso mendekoa baita.

Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.

OSTATU MOTA

2.13.- Euskadira etortzen diren turistak, ostatu motaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2009)



2.14.- Euskadira etortzen diren turistak, ostatu eta garraio motaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2009)



Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.

Atzerriko turistak gehienbat hoteletara joaten dira. Horrela, 465.000 bisitari, atzerriko turismo-eskaeraren % 60, hara joaten dira. Beste % 20k doako etxebizitzetan hartzen dute ostatu, % 3k alokatutako etxebizitzetan eta gainerakoek, % 18k, ostatuetan.

Hoteletara joandako bisitari kopuru osoak behera egin duen arren (% 2), aukeratzen duten ostatu nagusia da, doako etxebizitzen artean jaitsiera handia gertatu delako (% 9); alokatutako etxebizitzetan bereziki (% 33ko jaitsiera).

Joera horiek aldaketa nabaria ekarri dute aurreko urtekoen aldean; izan ere, alokatutako etxebizitzak hotelak baino gehiagotan aukeratu zituztelako.

Hotelek pisu erlatiboa handitu dute hegazkinez etortzen diren bisitarien artean. Izan ere, doako etxebizitzetara eta alokatutako etxebizitzetara ere joaten dira. Hegazkinez etortzen diren bisitariek oso gutxitan aukeratzen dute bestelako ostaturik.

Hotela aukeratzen duten turisten jaitsiera hegazkinez etortzen direnen artean gertatu da batez ere (% 20). Horren aldean, errepidez etortzen diren eta hotela aukeratzen duten turisten kopuruak % 8 egin du gora. Hala ere, doako etxebizitzetan ostatu hartutakoek jaitsiera handia izan dute errepidez etortzen diren bisitarien artean (% 12; hegazkinez etortzen diren erabiltzaileen % 3aren aldean).

2.15.- Euskadira etortzen diren turistak, ostatu motaren arabera. Estatuaren eta Euskadiren arteko konparazioa (2006 – 2009)

Euskadiko eta Estatuko eskaeren ostatu-egitura antzekoa da oro har: hotela eta altu dauden lekuak nagusitzen dira doako etxebizitzen artean. Aldeen artean, Euskadin, oso gutxitan aukeratzen dituzte alokatutako etxebizitzak, eta askotan bestelakoak.

Azken urteetan joerak egonkor jarraitu du. Aldaketa handirik gertatu ez bada ere, bilakaerari begiratuta, badirudi hotela dela ostaturik gustukoena bi testuinguruetan.



Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.

3. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TXANGOZALEAK

GARRAIO MODUA

3.1.- Euskadira etortzen diren txangozaleak, garraio motaren arabera. Hileko bilakaera (2007 – 2009)

		Guztira / Total	Sarbidea / Vía de acceso	
			Errepidea / Carretera	Aireportua / Aeropuerto
2007	**Guztira / Total**	**7.988.770**	**7.982.504**	**6.266**
	Urt / Ene	**529.910**	529.689	221
	Ots / Feb	**505.885**	505.793	92
	Mar / Mar	**633.601**	633.047	554
	Apr / Abr	**732.458**	731.978	480
	Mai / May	**622.158**	621.595	563
	Eka / Jun	**707.157**	706.560	597
	Uzt / Jul	**820.165**	819.345	820
	Abu / Ago	**1.127.404**	1.126.521	883
	Ira / Sep	**682.246**	681.281	965
	Urr / Oct	**567.376**	567.051	325
	Aza / Nov	**531.820**	531.540	280
	Abe / Dic	**528.591**	528.105	486
2008	**Guztira / Total**	**7.841.697**	**7.835.570**	**6.127**
	Urt / Ene	**488.582**	488.369	213
	Ots / Feb	**547.348**	547.158	190
	Mar / Mar	**570.792**	570.042	750
	Apr / Abr	**582.852**	582.281	571
	Mai / May	**685.916**	685.507	409
	Eka / Jun	**648.892**	648.429	463
	Uzt / Jul	**883.169**	882.714	455
	Abu / Ago	**1.157.148**	1.156.272	876
	Ira / Sep	**659.516**	658.892	624
	Urr / Oct	**572.231**	571.301	930
	Aza / Nov	**500.510**	500.436	74
	Abe / Dic	**544.741**	544.169	572
2009	**Guztira / Total**	**8.044.357**	**8.041.669**	**2.688**
	Urt / Ene	**490.964**	490.776	188
	Ots / Feb	**483.144**	483.013	131
	Mar / Mar	**520.955**	520.644	311
	Apr / Abr	**645.166**	644.823	343
	Mai / May	**658.478**	658.275	203
	Eka / Jun	**617.235**	617.022	213
	Uzt / Jul	**807.272**	807.272	0
	Abu / Ago	**1.337.455**	1.336.750	705
	Ira / Sep	**722.391**	722.391	0
	Urr / Oct	**588.126**	587.772	354
	Aza / Nov	**558.048**	557.970	78
	Abe / Dic	**615.123**	614.961	162

Euskadi mugan egoteak, eta zehazki, mugaren bi aldeetako harremanen eta trukeen eskualdeko portaerak, txangozale ugari egotea dakarte. Horrez gain, ez dago turismo-eskaintza masiboa, alegia, eguzkia eta hondartzaren eskaintza moduko eskaintzarik. Horren ondorioz, atzerritarrek egindako 10 bisitetatik 9tan ez dute gaurik ematen. Donostia mugatik hurbil egotea, eta, batez ere, haren ertzean bertan dagoen hiri-kokapen garrantzitsua, gakoak dira merkataritza-, lan- eta aisialdi-harreman garrantzitsuak ezartzeko. Horrela, etengabe etortzen dira txangozaleak.

Euskadira 8.044.000 txangozale inguru etorri ziren 2009. urtean. Hortaz, igoera arina (% 2,5) gertatu zen aurreko urtean lortutako bolumenaren aldean, eta azken bi urteetan ezarri zen merkatuaren beheranzko joera aldatu egin zen.

Bisita kopuruak nabarmen egin zuen gora udan, abuztuan bereziki, udaberrian eta udazkenean baino zertxobait gehiago. Urtarrilean eta otsailean egon zen txangozale gutxien; abuztuan egondakoen herena. Sasoiaren araberako joera horretan, aisialdiak eta merkataritza-harremanek laguntzen dute. Trukeak eskualdeen artean dira batik bat, nazioarteko trukeen aldean. Hala ere, sasoiko izaera hori ez da hain nabaria turisten artean.

Txangozaleen bisiten igoera ez zen homogeneoa izan urte osoan zehar. Funtsean abuztutik urte amaierara arte gertatu zen. Horrela, hilero, abuztura arte gertatutako 184.000 bisiten galera orekatu egin zen, apirilean izan zen, Aste Santua dela eta, gora egin baitzuen. Horrela, azken balantzea positiboa izan zen, 200.000 bisita inguru gehiago egin baitziren. Abuztuan bisita kopurua nabarmen gehitu zen, eta abenduarekin batera hilabeterik dinamikoenak dira, aurreko urteko bolumenen aldean. Horrela, bisita kopurua % 15 eta % 13 handitu egin zen abuztuan eta abenduan, hurrenez hurren.

Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.



3.2.- Euskadira errepidez etortzen diren txangozaleak. Urteko bilakaera (2006 – 2009)



Txangozaleak oso gutxitan etortzen dira hegazkinez, eta 2009an pisu erlatiboa gehiago murriztu zuten, urtean, batez beste, % 56ko jaitsiera izan, hil guztietan modu oso homogeneoan banatuta egon zela. Jaitsiera horrek ez zuen frantziar jatorriaren pisua handitu, harremanak gehienbat eskualdekoak baitira, nazioartekoak baino gehiago. Guztiz kontrakoa gertatu zen, urteetan zehar egonkor jarraitu duelako; izatekotan, beheranzko joera gertatu da, baina oso arina izan da.

Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.

3.3.- Euskadira errepidez etortzen diren txangozaleak, bizilekuaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2009)



BISITEN ARRAZOIAK ETA MAIZTASUNAK

Txangozale gehienak erosketak egitera, zerbitzu pertsonalak egitera eta aisialdian egotera etorri ziren Euskadira. Horrela, Euskadira etorritako atzerriko 3 turistetatik 2, erosketak egitera batez ere etorri ziren.

Horrez gain, 2009. urtean, gehikuntza handia izan zuten arrazoi horregatik egindako bisitek (% 9, eta 425.000 bisita inguru gehiago), zenbait urtetan jarraian bolumen osoak eta pisu erlatiboak behera egin bazuten ere. Horrela, mota horretako txangoen gehikuntzak ekarri du hazkunde orokorra.

Aisialdirako egindako bisitak laurdena baino gehiago dira. Azken urtean, bereziki erosketen kontrako portaera izan zuten, eta, oro har, motibazio pertsonalen kontrakoa, eskaera % 10 jaitsi zelako. Horren ondorioz, pisu erlatiboa ere txikiagotu egin zen.

Lan egiteko bisita kopurua % 7koa izan zen, eta urtero, pixkanaka, kopuru hori jaisten ari da.

3.4.- Euskadira errepidez etortzen diren txangozaleak, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2006 – 2009)



Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.

4. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO BISITARIEN GASTUAK

Atzerritarrek Euskadin egindako gastuak eta helduera kopuruak antzeko bilakaera izan dute. Joera aldatu egin zen 2009. urtean, 2006. urtetik gastuan gertatzen ari zen jaitsieraren aldean, izan ere, % 10 handitu egin zen, aurreko urtean izandako zifraren aldean.

Txangozaleen jarduerak eragin handia duen bisitari kopuruan, eta gastuan bilakaera positiboa izan zuen. Hala ere, gastua ez zen handitu bisita kopurua gora egin zuelako bakarrik, ehunekoari begiratuta asko ere gutxiago handitu egin baitzen. Badirudi erosketak egitera eta arrazoi pertsonalengatik etorri ziren txangozaleen bisita kopuruaren gehikuntzari esker egon zela bilakaera hori, gainerako arrazoiengatik etorritako bisita kopuruak behera egin bazuen ere.

Horrez gain, bisitarien batez besteko gastuak gora ere egin zuen, txangozaleak erosketak eta zerbitzu pertsonalak egitera etorri baitziren, hain zuzen ere.

4.1.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoa. Urteko bilakaera (2005 – 2009)



4.2.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastu osoa, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2009)



Egindako gastuaren ia erdia (% 48,5) arrazoi pertsonalengatik egindako bisitei dagokie; batez ere, erosketak egiteko etorri zirenei. Aisialdia eta oporrak, % 30 inguruko igoerarekin, eta negozioak, % 17ko igoerarekin, dira gastu-bolumenaren igoera ekarri zutenak nagusiki.

Azken urteetan, eta 2009an bereziki, bisiten arrazoia nagusia erosketak egitea izan da, aisialdiko bisiten aldean. Horrela, aisialdiko bisitetan egindako gastuak behera egin du azken hiru urteetan, 2007. urtean bisita pertsonalen adinako gastua ekarri bazuen ere.

Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.

Negozio-bisitek hiru urte daramatzate jarraian ekarpen ekonomikoari eutsiz, eta goranzko joera arina ere izan dute.

4.3.- Euskadira etortzen diren bisitarien batez besteko gastua, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2009)



Bisita negozioengatik egindako bidaiariek dute gasturik handiena, 115 €-koa egunero; aisialdian egoteko, arrazoi pertsonalengatik eta bestelako arrazoiengatik bisita egindako bisitariek, berriz, 80 €-ko gastua egin zuten. Ikasleak dira egunero gasturik txikiena egin zutenak, alde nabarmenarekin.

Negozio-bisiten eguneko gastua, gutxienez, beste edozein baino % 24 handiagoa bada ere, azken urteetan zenbatekoak berdinduz joan dira. Horren arrazoia da bidaiariek gastuak nabarmen murriztu dituztela 2007. urtetik, eta aisialdirako eta arrazoi pertsonalengatik etortzen diren bisitariek gastua handitu dutelako 2009. urtean zehar.

4.4.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastua pertsonako, bisitaren arrazoiaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2009)



Ikasleen bisiten iraupena beste edozein bidaiariena baino luzeagoa da, eta hori dela eta, haien batez besteko gastu osoa handiagoa da. Hala ere, datu horretan kontuan hartu behar da bidaiari kopurua eta eguneko egindako batez besteko gastua, ikasleek egindako gastu osoa oso txikia baita.

Nabarmendu behar dugu Euskadira lanarengatik eta negozioak egiteko etortzen diren bisitarien batez besteko gastua. Izan ere, 268 €-ko gastua egiten dute, aisialdirako etortzen direnen aldean (136 €), eta bereziki arrazoi pertsonalengatik bisita egiten dutenen aldean (99 €).

Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.

5. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TXANGOZALEEN GASTUAK

5.1.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2009)

Atzerriko txangozaleek 643 milioi euro baino zertxobait gutxiagoko gastu egin zuten. Beraz, aurreko urtearen aldean, % 27 handitu zen, eta 2006tik zegoen beheranzko joera apurtu egin zuen; 2006. urtean izan zuen, hain zuzen, hedapenik handiena.



Frantziako txangozaleek gastuaren % 96 baino gehiago ekartzen dute, eta horren ondorioz, joera ebolutiboak guztiz markatzen dituzte. Ekarpena egiten duen hurrengo merkatua Erresuma Batua da, 7 milioi baino gehiagorekin. hala ere, 2007. urtean ekarpenik handiena egin zuenetik, behera egin du etengabe. Bi joera horien kontrako bilakaeraren arrazoia da profilen eskaera zeharo desberdinak direla: batetik, ia eskualdekoa den harremana ezartzen duten bisitariak dira; bestetik, bisita negozioengatik egindako distantzia luzeko bisitariak ditugu, haien artean zenbait frantziar ere badaudela.

5.2.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa, bisitaren arrazoia nagusiaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2009)

Txangozaleen kasuan, arrazoi pertsonalengatik egindako bisitek ekartzen dute gasturik handiena: 492 milioi euro. Sortutako gastu osoaren % 77a da, eta pisu erlatibo hori nabarmen handitu zen 2009. urtean, aurreko urtean baino 150 milioi euroko gehiagoko gatua egin baitzuten. Txangozaleek 2009. urtean egin zuten azken bosturteko gasturik handiena.



Aisialdiko txangozaleek % 15eko gastua egin zuten, eta negozioetakoek, % 6. Biek jaitsiera arina izan zuten 2009. urtean, eta erosketak egitera eta arrazoi pertsonalengatik bisita egindako txangozaleen gastua handitu egin zen.

Horrek, txangozaleek eta turistek egindako ekarpenak nabarmen bereizten ditu.

Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.

5.3.- Euskadira etortzen diren txangozaleen gastu osoa pertsonako, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2009)



5.4.- Euskadira etortzen diren bisitarien gastua pertsonako, bisitaren arrazoia nagusiaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2009)



Txangozaleek pertsonako egindako gastua 80 eurokoa izan zen, aurreko urtean baino % 24 handiagoa, baina 2006. urtean egindakoaren azpitik.

Distantzia luzeko txangozaleek mugako eskualdeetatik etorritakoek baino gastu handiagoa egin zuten pertsonako. Txangozale britainiarren (muga barruko harremanarekin lotuta ez daudenak) eta frantziarren (bolumenari begira, joera orokorra definitzen dutena) arteko aldea joera horien adierazgarria da, izan ere, 2 euroko gastua egiten dute pertsonako, frantziar pertsona bateko.

Pertsonako gastuaren arteko aldea berdintzen ari dira azken urteetan, 2007. urtean alderik handiena izan bazuten ere.

Arrazoiaren araberako txango motari dagokionez, arrazoi pertsonalengatik egindako bisitek ekarritako gastuak nabarmendu ziren: 92,5 € pertsonako. Aisialdirako (49,5 €) edo negozioak egiteko (68 €) etorritakoen aldean, zifra askoz ere handiagoa da.

Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.

6. EUSKADIRA ETORTZEN DIREN ATZERRIKO TURISTEN GASTUAK

Atzerriko turistek 479 milioi euro baino gehiagoko gatua egin zuten.

Azken bosturtekoan egindako gasturik txikiena da: 2005ean baino % 12 gutxiago, eta 2007an (gasturik handiena egin zuten urtean) baino % 21 gutxiago.

Eguneko batez besteko gastuaren jaitsierarengatik (jaitsiera nagusiki 2008an gertatu zen, eta 2009an ia egonkor jarraitu zuen) eta pertsonako batez besteko gastuaren jaitsierarengatik (bi urteetan jarraian jaitsiera handiak izan zituena) gertatu ziren jaitsierak gastu osoan.

Jaitsiera izan arren, pertsonako batez besteko gastua 600 € baino gehiagokoa izan zen turistako; beraz, 2005ean edo 2006ean egindakoa baino handiagoa izan zen. Hala ere, 2009. urteko eguneko batez besteko gastua nahiz gastu osoa bosturtekoaren txikiena izan zen.

6.1.- Euskadira etortzen diren turisten gastu osoa. Urteko bilakaera (2005 – 2009)



6.2.- Euskadira etortzen diren turisten eguneko batez besteko gastua. Urteko bilakaera (2005 – 2009)



Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.

6.3.- Euskadira etortzen diren turisten batez besteko gastua pertsonako. Urteko bilakaera (2005 – 2009)



Frantziako merkatuak sortu zuen atzerriko turismo-gasturik handiena, 140 milioi euroko ekarpenarekin, hots, urte osoaren % 30 inguru. Horrez gain, 2009. urtean zehar, gastu horretan duen pisu erlatiboa handitu egin zuen Frantziak, merkatu gehienetan, urtetik urtera, jaitsierak gertatu ziren arren, Europakoetan bereziki, haien artean, garrantzitsuenak Britainia Handia eta Alemania direla.

Frantziako merkatuaz gain, turismo-herrialde eta -eskualdeen artean gastuak hedapen handia izan zuen. Lau merkatu nabarmendu ziren, gastuan % 6 eta % 10eko eragina izan zutenak. Hauek dira: Latinoamerikako merkatua, turismo-gastuaren % 10 ekarri zuena; Alemaniakoa, % 9; britainiarra, % 8 eta estatubatuarra, % 7. Distantzia luzeko eta distantzia ertaineko merkatuak bereizi ziren, eta merkatu amerikarren gastua nabarmen handitu bazen ere, Europakoetan jaitsiera handia gertatu egin zen.

Gainerako merkatuen artean, Italiaren eta Portugalen ekarpenaren galera nabarmen du zen, bi urteetan jarraian jaitsiera handia izan zutelako. Bestalde, Europako iparraldeko merkatuek gora egin dute, pixkanaka, 2006. urtetik.

Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.

6.4.- Euskadira etortzen diren turisten gastu osoa, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2009)



Turismo-merkatuek aldaketa nabarmenak izan dituzte eguneko batez besteko gastu orokorrean, 98 €-koak hain zuzen. Egunean gasturik handiena duen merkatua Europako iparraldekoa da, 155 €-kin eguneko. Haren atzetik, estatubatuarra (136 €) eta portugesa (132 €) kokatu ziren.

Kontrako aldean, eguneko gasturik txikiena izan duten merkatuak latinoamerikarra (84 €), egonaldien iraupen handiarengatik, britainiarra (85 €) eta frantziarra (87 €) dira. Hain zuzen, Alemaniarekin, 107 €-ekin, batez bestekoaren gainetik egondako gastua duena, hiru merkatu nagusiak direnak ekarpen orokorrari dagokionez.

Merkatu nagusiek azken bosturtekoan eguneko gastua murrizteko joera izan dute, nahiz eta 2009. urtean, haietako batzuek, hala nola alemana edo estatubatuarra, eguneko batez besteko gastua handitu,

Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.

6.5.- Euskadira etortzen diren turisten eguneko batez besteko gastua, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2009)







Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.



Merkatuetan batez besteko gastuan egondako diferentziak turismo-egonaldien iraupenarengatik gertatu dira Euskadin. Errepidez errazago heltzen diren merkatuak dira pertsonako batez besteko gastu txikiena dutenak, hala nola Frantziak, Portugalek, Belgikak eta Herbehereek. Urrunen daudenak dira gastu handiagoa egiten dutenak, merkatu bakoitzaren bisiten berariazko iraupenaren arabera ere bai.

Horren arabera, AEBko merkatua, 1.243 €-ekin eta Latinoamerikarra bereziki, 2.053 €-ekin dira nabarmentzen direnak, pertsonako batez besteko gastua 601 €-koa delako. Horrez gain, 2009an zifrak nabarmen handitu dituzte.

Gainerako merkatu nagusien artean, gastua ere batez bestekoaren gainetik dago, hala nola alemanen artean (829 €) eta britainiarren artean (659 €). Hala ere, Frantziako merkatu nagusian nabarmen azpitik dago (343 €).

Merkatu nagusien artean, azken bosturtekoan, Latinoamerikako eta AEBko merkatuek pertsonako batez besteko gastua nabarmen handitu dute 2007. urtetik. Alemaniakoak, 2009an igoera arina izan bazuen ere, gastua ere handitu du. Hala ere, britainiarra % 30 jaitsi da 2007. urtetik, eta frantziarrak egonkor jarraitzen du.

6.6.- Euskadira etortzen diren turisten pertsonako batez besteko gastua, bizileku nagusien arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2009)



Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.







Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.

6.7.- Euskadira etortzen diren turisten gastu osoa, bisitaren arrazoia nagusiaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2009)



Aisialdiek eta negozioek Euskadiko atzerriko turisten gastuaren % 91 ekartzen dute.

Guztira 230 milioi euro baino gehiago sortu dituzte (guztizkoaren % 48a) aisialdiak eta oporrek. Hori dela eta, gastuaren arrazoi nagusiak dira. Hala ere, azken urteetan, galera handia izan du arrazoi horiengatiko gastuak (2007an sortutako bolumenaren % 37). Horrez gain, negozioek eragindako gastuak igoera arin eta etengabea izan du. Bi motatako bidaiariek turismo-gastu sortzaile moduan duten garrantziaren erakusgarria da hori.

Arrazoi pertsonalengatiko, ikasketengatiko edo hirugarren arrazoiengatiko bisitetan gastuak egonkor jarraitu du.

6.8.- Euskadira etortzen diren turisten batez besteko gastua, bisitaren arrazoia nagusiaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2009)



Lana eta negozioak (139 €) eta aisialdia eta oporrak (104 €) dira eguneko gasturik handiena ekartzen dutenak. Horien azpitik, eta baita eguneko batez besteko gastuaren azpitik ere, kokatzen dira gainerako arrazoiak.

Ikasleek sortutako gastua bereziki baxua da; gehieneko zenbatekoaren laurdena baino ez, negozioengatiko bisiten artean sortutakoa.

Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.

6.9.- Euskadira etortzen diren turisten batez besteko gastua pertsonako, bisitaren arrazoia nagusiaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2009)



Ikasleek pertsonako sortutako batez besteko gastu handia (batez ere egonaldiak askoz ere luzeagoak direlako) ezin da konparatu beste arrazoirengatik egindako gastuekin. Hala ere, ez du eragin handirik sortutako gastu osoan, eguneko gastu-maila txikia delako, eta, bereziki, horrekin lotutako bidaiari-bolumena ere eskasa delako.

Gastua ekartzen duten arrazoi nagusien artean, negozioak dira, 1.004 €-ekin, pertsonako gastu-mailarik handiena dutena, izan ere, aisialdirako etortzen diren bisiten gastua ia bikoizten dute. Azken urtean joera hori handitu da, negozioetako bidaiarien gastua handitu delako (% 11) eta aisialdirako eta oporretarako etortzen diren bisitarien kopuruak jaitsiera arina izan duelako (% 5).

6.10.- Euskadira etortzen diren turisten gastu osoa, erabilitako ostatuaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2009)



Ostatu motaren arabera, hotelak ekartzen du turismo-gasturik handiena. Hain zuzen, 284 milioi dira, turismoak sortutako gastu osoaren % 59a.

Hala ere, azken bi urteetan, ekarpenak nabarmen egin du behera. Horrela, 2009. urtean, mota horretako bisitariek azken bosturtekoaren gasturik txikiena egin dute.

Senide edo lagunen etxebizitzetan ostatu hartutako bisitariak dira aurrekoen ondoren gasturik handiena egiten dutenak (% 16,5). Horrela, 2009an baino 79 milioi euro gehiago dira, aurreko urtean lortutakoaren antzekoa, eta ez da aldatu 2006. urtean lortutako maximotik gertatutako beheranzko joera.

Alokatuta eta kanpinetan dauden bisitariek antzeko gastua egin dute, gastu osoaren % 7 eta % 9 artean. Tradizioz, alokatutako etxebizitzetan daudenek egindako gastua baino handiagoa da, hala ere, 2009an izandako bilakaera dela eta, nabarmen hurbildu dira bi gastuak.

Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.

6.11.- Euskadira etortzen diren turisten eguneko batez besteko gastua, erabilitako ostatuaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2009)

Hoteletan dauden bisitariek egin zuten pertsonako gasturik handiena, beste edozeinen gainetik. Guztira, 166 € dira eguneko, eta etxebizitzetan edo kanpinetan daudenek 76 €-ko gastua baino ez zuten egin. Kanpinetan egondako turisten gastuak nabarmen egin zuen gora 2009an, oro har, jaitsierak gertatu arren.



Alokatutako etxeetan ostatu hartutako bisitariak dira egunean gasturik txikiena egin zutenak, 50 €-ekin.

6.12.- Euskadira etortzen diren turisten pertsonako batez besteko gastua, erabilitako ostatuaren arabera. Urteko bilakaera (2005 – 2009)



Alokatutako etxebizitzak aukeratzen dituzte atzerritarrek gehienbat denboraldi luzeak egiteko, eta horren eraginez, beste edozeinek baino batez besteko gastu askoz ere handiagoa egiten dute pertsonako, norberaren etxean ostatu hartzen dituztenak barne. Azken horiek ere gastu txikiagoa egiten dute.

Hoteletan ostatu hartutako pertsonako gastua atzerriko turismoaren batez bestekoan bertan kokatu zen.

Kanpinetan eta bestelako ostatuetan egondako bisitariek egiten dute gasturik txikiena pertsonako, etxebizitza alokatzen dutenek sortutako gehieneko gastua baino lau aldiz txikiagoa, eta atzerriko turismoaren batez bestekoaren bi herena.

Documento propiedad de BASQUETOUR, S.A.
Prohibida su reproducción parcial o total son autorización expresa.

BASQUETOUR

TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE TURISMO



Herri-baltzua
Sociedad Pública del

Société Public du
Public corporation of

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO